

SOZIOLOGIA

Agurtzane MITXEL XIMENEZ

*FAMILIA ETA HAUR ESKOLAREN
ARTEKO HARREMANAK:
KOMUNIKAZIOA HIZPIDE /
RELACIÓN ENTRE FAMILIA Y
ESCUELA INFANTIL;
COMUNICACIÓN*

TFG/GBL 2014



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Infantil/
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**FAMILIA ETA HAUR ESKOLAREN ARTEKO
HARREMANAK; KOMUNIKAZIOA HIZPIDE /
RELACION FAMILIA ESCUELA INFANTIL;
COMUNICACION**

Agurtzane MITXEL XIMENEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Agurtzane MITXEL XIMENEZ

Izenburua / Título

Familia eta Haur Eskolaren arteko harremanak; komunikazioa hizpide / Relación entre familia y Escuela Infantil; Comunicación

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Olatz MUÑOZ ARRIETA

Saila / Departamento

Soziologia / Sociología

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua lanean zehar azaltzen da, izan ere soziologiako lan bat burutu da eta azken batean pedagogiak eta psikologiak soziologiarekin harreman zuzena du. Hasiera batetan, errebisio teorikoan familia ereduez, autonomiaz edo baterako hezkuntzaz aritzen naizenean oinarrizko prestakuntzarekin bat egiten du. Gainera, nire ustez graduan zehar familia eta eskolaren arteko erlazioari behar adina garrantzia eman ez zaion arren, lanean zehar lantzen ditudan hainbat alderdi ikasgaietan landu ditugu, hala nola, lehen aipatu ditudan baterako hezkuntza edo autonomia.

Didaktika eta diziplinako moduluak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ezagutzea ahalbidetu digu, izan ere irakaskuntza eta ikaskuntzaren ikuskera desberdinak ezagutarazi ditu eta ikaskuntza esanguratsua terminoa eta bere garrantzia ezagutarazi digu.

Halaber, Practicum moduluak gainontzeko moduluetan (oinarrizko prestakuntzako modulua eta diziplinako moduluan) landutakoa praktikara eramatea baimendu digu. Gure lana izango dena lehenengo pertsonan ezagutzea ahalbidetu digu eta honekin hurrekin lan egingo dugula ikusteaz gain, gainontzeko irakasle eta eskolako pertsonala eta familiekin lan egingo dugula erakutsi digu. Honi esker ere, Gradu Lan Amaiera aurrera eramateko ideiak eta ekarpenak lortu ditugu.

Azkenik, aukerako moduluak, nire kasuan Pedagogia Terapeutikoko hiru ikasgai eta Gorputz Hezkuntzako bat, aurrerantzean nire lana izango den horretan ezagutza psikologiko zein pedagogikoak sakontzeko aukera eskaini dit.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira. "La importancia de los tiempos", "Hábitos de autonomía personal", "Cada persona somos diferentes. Atención a la diversidad", "La coeducación" y "El papel de la persona adulta". Hauetaz gain, elkarrizketen emaitzen analisiaren atalean gurasoek esandako hainbat gauza literalean azaltzen direnez, gazteleraz aurkitzen dira, baita hainbat autoreen edo adituen zitak ere. Baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Lan honetan familia eta eskolaren arteko harremanen inguruko behaketa bat egiten da. Honekin batera, hauen arteko komunikazioa egokia izan dadin erabilgarri suerta daitezken estrategiak beha daitezke. Maiz familia askok beren haurren hezkuntza eskolaren esku uzten dute, kontutan izan gabe gurasoek duten garrantzia erabatekoa dela. Gauzak horrela, guraso zein eskolaren arteko komunikazio argia, gardena eta koordinatua beharrezkotzat jotzen da. Bestalde, familia eta eskolaren arteko erlazioari lotuta, maiz gurasoek eta irakasleek haurrak autonomoak izatea bilatzen dute, baina hori lortzeko modua ez da berdina. Horregatik, adin hauetan hain garrantzitsua den autonomiari parada berezia eskaini zaio lan honetan. Gainera, garai hauetan, baterako hezkuntza edo koedukazioaz hitz egiten da, baina errealitatean gurasoek eta hezkuntza taldeek askotan ez dute gaia behar bezala jorratzen eta neurri batean, Haur Eskola eta gurasoen arteko harreman falta baten ondorioa izan daiteke. Beraz, ondoren azaltzen den lanean, familia eta eskolaren arteko erlazioa, autonomia eta baterako hezkuntza lantzen dira.

Hitz gakoak: familia; eskola; erlazioa; hezkidetzeta, autonomia.

Resumen

En este trabajo se realiza una revisión sobre la relación entre familia y escuela. Para que la comunicación sea adecuada pueden observarse diferentes estrategias. A menudo muchas familias dejan la educación de sus hijas e hijos en manos de la escuela, sin darse cuenta de la importancia que ellos tienen. Por ello, es imprescindible que esa comunicación sea clara, transparente y coordinada. Además, en ocasiones las familias y el profesorado procuran que las niñas y niños sean autónomos pero la forma de hacerlo no es la misma. Por ello, hay que dedicarle una especial atención a la autonomía. En este trabajo también se habla de la coeducación, en la realidad, muchas familias y equipos educativos no tratan el tema con la importancia que este merece. Por ello, en el trabajo que se expone a continuación, se trabajan la relación entre familia y escuela, autonomía y la coeducación.

Palabras Clave: familia; escuela; relación; coeducación; autonomía.

Abstract

This paper is a survey of the relationship between the school and families.

In addition, it shall look into strategies that may be useful in order to achieve the desired communication.

It is often the case that families leave the education of their children entirely up to the school, without bearing in mind that the role of parents in education is of utmost importance.

Therefore, a clear, accountable and coordinated communication process between parents and school is a necessity.

Besides, the usual aim for both parents and schools is that children develop their autonomy, but they often do this in different ways.

Co-education has become a ubiquitous concept these days. However, in reality, parents and education teams often do not work on this issue as it requires.

Therefore, the relationship between families and the school, children's autonomy and co-education shall be addressed in the following pages.

Keywords: family, school; relationship; co-educación; autonomy.

Aurkibidea

Aurrekariak	1
1. Errebisio teorikoa	3
1.1. Haur baten jaiotza	3
1.2. Sozializazioa haurtzaroan	4
1.3. Eskolan familiek parte hartzearen garrantzia	6
1.4. Familia ereduak	8
1.5. Komunikatzeko estrategiak	10
1.5.1. Komunikazioaren helburuak	11
1.5.2. Komunikazioa errazten eta zailtzen duten elementuak	11
1.5.3. Ahozko eta ez ahozko komunikazioa	14
1.6. Pikler: Komunikazioa autonomia lantzeko orduan	16
1.6.1. Testuinguru historikoa	16
1.6.2. Jarduera autonomoaren balorea	18
1.6.3. Mugimendu autonomoaren garrantzia lehenengo urtean	19
1.6.4. La importancia de los tiempos	21
1.6.5. Hábitos de autonomía personal	22
1.7. Cada persona somos diferente. Atención a la diversidad	28
1.8. La coeducación	29
1.9. El papel de la persona adulta	31
1.10. Familien parte hartzea hezkuntza zentroetan	32
1.11. Parte hartzeko era desberdinak	33
1.11.1. Familiarizazio prozesua	33
1.11.2. Bakarkako elkarrizketak	34
1.11.3. Taldeko elkarrizketak	34
1.11.4. Eskolako bilerak	35
1.11.5. Eskolako jardueretan parte hartzea	35
1.11.6. Gurasoen elkarrekin. APYMAK	36
1.11.7. Gurasoen eskola	37
1.11.8. Sarrera eta irteera orduak	37
1.11.9. Egunerokoa	37
1.11.10. Teknologia berrien bidezko harremana	38
1.12. Familiekin sexismoa lantzearen garrantzia	38
1.13. Familiekin autonomia lantzearen garrantzia	39
1.14. Hezitzaileen arteko erlazioa	40
2. Gelan gurasoekin harremanak hobetzeko proposamenaren diseinua	42
2.1. Sarrera: Garatu den ikerketa kualitatiboaren aurkezpena	42
2.2. Objetivo	43
2.3. Elkarrizketa bidezko ikerketaren oinarriak	43
2.3.1. Elkarrizketaren helburuaren inguruan	43
2.3.2. Lan eremuaren inguruan	44
2.3.3. Elkarrizketatuen perfila	44
2.4. Elkarrizketen emaitzen analisia	46
2.4.1. Analiaren metodoa	46
2.4.2. Haurra Haur Eskolara eramateari buruz	46
2.4.3. Lehen egunak Haur Eskolan	47

2.4.4. Haur Eskolarekin Erlazioa	48
2.4.5. Familia eskola erlazioaren inguruan	49
2.4.6. Generoa eta jostailuak	50
2.4.7. Haurrak bere gorputzarekin jolasean	51
2.4.8. Haur Eskolako materialak	51
2.4.9. Autonomia eta komunikazioa	52
2.4.10. Begirada orokor bat	53
Ondorioak eta etorkizunerako proposamenak eta galderak	55
Erreferentziak	67

AURREKARIAK

Haur Hezkuntzarako eskubidea eta ondorioz Haur Eskola batera joatekoaren ideia ez litzateke familia guztietan berdin antzeman behar. Pertsona bakoitza desberdina den heinean familia bakoitza ere desberdina da, eta hortaz, bere haurren hezkuntzari dagokionez familia bakoitzaren beharrak desberdinak dira.

Hainbat ikerketek haurren hezkuntza arrakastarentzat gurasoen parte hartzea ezinbestekoa dela erakutsi dute. Arrakasta familien formakuntza, kultura eta maila ekonomikoaren arabera era batekoa edo bestekoa izanen da. Gauzak horrela, arrakasta soilik populazio zehatz bati zuzentzen zaio. Egoera honen aurrean, hainbat familia gizarte bazterketara zigortu ahal dituen zirkulu honekin apurtu beharra dago.

Zirkulu hau apurtzeak Haur Hezkuntza familia guztiei eskaintzea suposatzen du.

Haur txikitxo hauek beren bizitzaren lehenengo urte hauetan bizitzen dituzten esperientzia eta erlazioen hedakuntzan, haurren pertsonalitatearen eraikuntzan eta beren garapenean duten garrantzia kontutan izanda, gurasoak eta Haur Eskola lehenengo mailako giza eta hezkuntza agenteak bihurtzen dira. Hau guztiagatik, beharrezkoa suertatzen da familia eta eskolaren arteko erlazioa eta parte hartzea suztatzea. Ez da ahaztu behar biok helburu komuna dutela, haurren hezkuntza eta ongizatea.

Haurren hezkuntzan familiek pisu handia dute, instituzio hau norbanakoaren formakuntzaz arduratzen den lehen erakundea da eta eskolak hau osatzen du, honen adibide da ondorengo idazleak familiaren inguruan dioena:

"La familia es una institución primaria de relación entre seres humanos, tan antigua como la cultura, con implicaciones (...) sobre todo educativas." (Pérez de Guzmán, 2002, 205)

Kontutan izan behar da ere, gizarteak aurrera egin duen heinean, eskolak hainbat aldaketa prozesu bizi eta bere egin dituela.

"La escuela, al igual que la familia, se ha ido adaptando a los vaivenes sociales y a las diferentes exigencias y funciones que la sociedad le ha ido encomendando a lo largo de la historia." (Pérez de Guzmán, 2002, 207)

Gradu amaierako lan gisa gai hau "*Familia eta eskolaren arteko harreman eta komunikazio egokia lortzea*" hautatzearen zergatia ondorengo da: Nafarroako Unibertsitate Publikoan lau urte ikasten eta hausnartzen eman ostean, familiek eskoletan edo Haur Eskoletan betetzen duten paperaren inguruan kontzientzia zabaldu behar delakoan nago.

Burututako ikasketetan, ikasten ari garen gure etorkizuneko lanbiderako, hain zuzen ere, irakasle lanerako, gurasoekin jokatzeko moduaren inguruko pautak faltan bota ditut. Nire ustez hurrekin lan egiteko prestatzen zaigun arren, gure lanbidean hain garrantzitsuak diren guraso edo familiekin lan egiteko apenas prestatzen zaigu.

Gainera, gurasoekin lan egitea batzuetan oso aberatsa eta aberasgarria bada ere, beste batzuetan oso lan zaila eta korapilatsua bilakatzen da.

1. ERREBISIO TEORIKOA

1.1. Haur baten jaiotza

"Toda persona que se ocupa de la educación de un niño tiene derecho a comunicarse con el resto de las personas que cuidan de dicho niño." (Forest y García, 2006,61-62)

Haur baten jaiotzaren aurrean, bere inguruan gaudenei, ama, aita, eskola, senideak, suposatzen digun ardura eta erantzukizun handiaz gutxitan gara kontziente. Une honetatik aurrera ezer ez dela berdina izango eta egiten dugun guztia era batean edo bestean haurtxoarengan eragina izango duela jakin behar dugu. Gauzak horrela, ematen dugun pauso bakoitza, haurrengandik gertuago edo urrunago egotea suposa dezake.

Horrela ba, bere inguruko mundua erabatekoa edo bestekoa izatea ahalbidetuko duena haurren inguruan pertsona bakoitzak hartzen duen jarrera izango da. Horregatik asko zaindu behar dugu gure jarrera eta ez dugu ahaztu behar gu helduok haurren erreferenteak garela.

Hezkuntza prozesua, egunez egun askeagoak diren pertsonak egiten jarraitzea helburu duena bezala ulertuz gero, hezten duen pertsonaren jarrera hezten dituen hurrekiko irekia, baikorra, malgua, enpatikoa, errespetukoa eta helburu hau bideratzera (erantzutera) zuzenduta egon behar duela ulertuko dugu.

Garaietan zehar hezkuntza eta haurren zainketa inguruko guztiak aldaketa esanguratsuak esperimintatu ditu eta horrexegatik, gauza guztietan bezala, egunen egun gaian jantzi beharra dago.



1. Irudia. Haur baten jaiotzak ardura dakar berarekin

1.2. Sozializazioa haurtzaroan

Behar fisiologikoez gain (elikatzea, atsedena, higiena eta babes beharra), haurrek beste behar batzuk dituzte, hala nola, afektiboak, emozionalak, intelektualak eta sozialak. Gainerako beharretan bezala, helduek behar horiek asetzeari gain, gizarte ohiturak eta ohitura afektiboak sortzen eta hartzen gidatu behar dituzte. Izan ere, gizarte ohiturek eta ohitura afektiboek emozioa hartzen laguntzen diote haurrari.

Gizakia izaki soziala da eta ezaugarri hori bizitzako lehendabiziko hilabeteetan azaltzen da, honako hau sozializazioa edo gizarteratze prozesuan bideratzen delarik.

Taldean bizi eta antolatuko ez bagina, ez genuke espezie bereko kideekin harremanik eduki behar. Baina gu, gizakiok elkarrekin bizi gara, eta lehen aipatu bezala, izaki sozialak gara.

Haurren garapenean pertsona desberdinek parte hartzen dute, izan ere, haurren garapena bitarteko sozial eta kulturak dituen prozesua da. Pertsona hauek guztiek elkarri eragiten diete eta elkarrekin parte hartzen dute. Haurrarekin bizi eta denbora pasatzen duten pertsonak erreferentzia izango dira. prozesu horri sozializazioa esaten zaio eta bizitza osoan zehar irauten du. Garrantzitsua da, azpimarratzea gizarteratzea ez dela adin zehatz batean bukatzen eta bizitza osoan irauten duela. Hala ere, haurtzaroan askoz ere biziagoa izaten da. Ez da ahaztu behar, etapa honetan nor bere buruarekin eta gainerakoekin modu egokian bizitzea ahalbidetzen duten osagai guztiak jasotzen direla, hala nola, ezagutzak, trebetasunak, arauak, e.a.

Haurrak lehen hilabete eta lehen urteetan, bere bizi-behar guztiak asetzeko pertsona heldu baten beharra du. Harreman honen bidez, sozializazio prozesua garatuko da. Honek bere nortasuna lantzen eta pertsona gisa gero eta autonomoago izaten utziko dio.

Bizitzako lehen urteetatik ohitura pertsonalak eta elkarbizitzakoak bultzatu behar dira. Modu berean, haurren eta helduen artean eta haurrarekin harreman duten

heldu guztien artean giro osasungarri, estimulagarri eta aberatsa sustatu behar da.

Familia pertsonentzako lehenengo bizi taldea eta erreferentziazko taldea da. Haurraren lehenengo erreferente afektiboak ama, aita edo berarekin bizi den pertsonak izango dira. Hauek haurraren lehenengo eskariei erantzungo diete. Txikitxoak lehenengo eredu, jarraibide eta arauak familiaren ingurunearen barruan izanen ditu.

Bowlby-ren (1969) teoriko psikoanalisten iritziz lehendabiziko harreman afektiboak garrantzia handia du geroko egokitzapenean.

Haurtxoak gizartera egokitzeko edo gizartean orientatzeko aurretiko etapa garatu behar du. Etapa honi atxikimendua deitzen zaio. Esan beharra dago, atxikimenduaren bidez, haurrak, bere espezieko kide jakin batzueganako lotura afektiboak ezartzen dituela.

Prat eta Del Rio (2004) diotenez, Lotura horiek haurrak atxikimendu-irudia deitzen zaien pertsonekin ezartzen ditu. Atxikimendu-irudiak haurrari segurtasun emozionala ematen dioten pertsonak dira. Haurrak beti pertsona horrengana joko du eta are gehiago egoera berri baten aurrean nola jokatu ez dakienean.

Haurra hazten den heinean, gizarteratzearen aldeko jokabideak areagotzen dira, gehien bat, haurrak enpatia gaitasunak eta aurreikusteko gaitasunak garatzen dituelako eta sozializazio esperientziak pilatzen dituelako.

Prat eta Del Rioren (2004) ustez Autore askok diotenez, esperientzia berriak alde zuzeneko ereduarekin lotuta daude: Intimitatea, konpromisoa eta abar haurtzaroko atxikimendu harremanetan finkatzen eta ikasten dira. Bikote harremanetan esaterako, intimitatea eta konpromisoa oinarritzko elementuak dira.

Gainera, ez da harrizkoa. Hazteari eta sozializazioari dagokionez, kultura desberdinetako gurasoek era desberdinean jokatzea. Bizitza testuingurua eta garapenari eta hezkuntzari buruzko irizpideak hain desberdinak izanda, logikoa da gurasoak seme alabekin dituzten jokabideak ere kultura batean eta besteetan desberdinak izatea.

Azken urteotan, Eskolak edo Haur Eskolak ere sozializaziorako elementu gisa garrantzia handia hartu du. Haurrak gero eta lehenago hasten dira Haur Eskolan eta ondorioz lehen familiena bakarrik zen heziketaren zati bat, gaur egun, bi esparru horiek partekatzen pasa da. Eskolak ere, ohitura osasungarriak eskuratzeko funtsezko lana beteko du, esate baterako, jaten ikastea, higiene arauak barneratzea, erlazionatzen ikastea, elkarbanatzen ikastea, eta abar.

Idoyagaren (2007) arabera, haurrak garapen integrala edo globala eta egokia izan dezan, biek printzipio berdinekin jardutea komeni da eta horretarako elkarrekin jarduteko eta lan egiteko kanalak ezartzea.



2.Irudia. Gizakia izaki soziala da

1.3. Eskolan familiek parte hartzearen garrantzia

Familiak hurrek beren eskura duten lehen agente sozializatzailea da eta beren garapenean ordezkazina den pieza da. Arrazoi honengatik, familiek haurren hezkuntzan eta garapenean presente egon behar dute eta horretarako beharrezkoa da eskolarekin kontaktua eta harremana izatea:

Autore betek honakoa baieztatzen du: "El hijo es un ser vivo, dinámico, que constituye una unidad y el colegio interviene complementariamente, no para descargar de la responsabilidad a los padres, sino para ayudarles en unas tareas que sobrepasan las posibilidades de la familia en una sociedad compleja". (De Gregorio, 1990,23)

Beraz, hezkuntzaz aritzen garenean, hau osatzen duten elementu garrantzitsuenetako bat ezin da aipatu gabe utzi: Familiak.


Familiak eta eskola lehen mailako eragileak izateak, bien arteko komunikazio ona egotea beharrezkoa egiten du. Gainera, Eskola edo Haur Eskola eta familiaren hezkuntza praktikarekin koherentzia eta koordinazioa bilatzen da. Eskola eta familiaren arteko erlazioa estua, gertua eta errespetuzkoa izateak ustez baina garrantzia handiagoa du.

Eskola eta familien arteko harremana oso desberdina izan daiteke eta horregatik, hau egokia izan dadin, parada berezia eskaini behar zaio.

"Muchos son los elementos que hacen que el contexto escolar y familiar sean muy diferentes: la misión que cumplen, los objetivos que se plantean, el tipo de relaciones que se establecen en su interior y las normas que rigen las interacciones." (Romero, 1995, 110)

Familia-eskola erlazio hau, osagarriak baina desberdinak diren bi mundu gerturatzeko balio behar izango du: Garapen integrala eta haurren zorientasuna.

Honen arabera, garrantzi handikoa da familia-eskola erlazioa noranzko biko ardatzaren bidez bideratua izatea, hau da, helburua haurren hezkuntza praktika hobetzea denean, informazioak, ekarpenak, iritziak eta aholkuak hezkuntza taldeak familiei egingo dizkie eta alderantziz. Biok eskaintzen duten informazioek garrantzia berbera dute, batenak ez du bestearena baino garrantzia gehiago. Lehen aipatu bezala, informazioaren aldetik garrantzitsuena, bion artean elkartrukatzea eta osatzea baita.



3.Irudia. Familia eta eskolaren arteko ezinbesteko erlazioa.

Haur Hezkuntzako eskola batetan familien parte hartzeak duen garrantzia ikusita, etorkizuneko profesional bezala, hezkuntza-ekintzaren kalitatezko eta bermearen elementu bezala aintzat hartu behar da.

Familia-eskola erlazio on batek honako prozesuei aukera ematen die:

- Haurren inguruko ezagutza handiagoa izatea eta informazio gehiago jasotzea.
- Jokabide eta irizpide adostuak ezartzea.
- Haurrekin esku-hartzeko eredu desberdinak eskaintzea.
- Familiei eskolaren hezkuntza funtzioa ezagutaraztea eta familiei bere hezitzaile funtzioaren garrantziaz jabetze-araztea.
- Eskolan zein etxean bizi izandako esperientziak eta bizipenak kontutan hartzea elkarren osagarri izateko.

1.4. Familia ereduak

Jarraian ageri den informazioa (<http://www.argia.com/argia-astekaria/1944/familia-ereduak-bikotean-bakarka-umeekin-edo-gabe>) (2014/04/6an kontsultatuta) eta (<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/familia%20ereduak%20eta%20gizarte%20aldaketak.pdf>) (2014/04/8an kontsultatuta) web orrietatik ateratako informazioa da. Erreferentzia gehiago erabili badira, momentuan zehazten da zein iturri erabili diren.

Familia bakoitza desberdina da eta haien artean ez dute zerikusirik, ezta urteetan zehar ezagutu izan dugun familia tradizionalarekin.

Gure mendebaldeko gizartean, familia eredu sozial desberdinak egoteaz gain, gainera, familia batek eredu horietako batzuen ezaugarriren bat izan ditzake. Honek guztiak aniztasuna dakar. Ondoren hainbat familia eredu aurki daitezke:

- Familia Konplexuak:

Kasu hauetan, familian gune bat baino gehiago bereizten dira. Etxerik ez duten bikoteak dira; Batzuetan gurasoekin etxea konpartitzen dute edo bikoteaz bereiztean, bikotekidetako bat gurasoen etxera itzultzen da.

- Familia nuklear funtzionala

Familia eredu hau gurasoek eta seme-alabek osatzen dute. Seme alabak biologikoak zein adoptatuak izan daitezke Urtetan, eredu tradizionala izan da. Dena den, aldaketa batzuk egon dira, lehen gurasoak ezkondata zeuden eta seme alabak biologikoak izan ohi ziren. Gaur egun berriz bikote asko ez daude ezkondata edo izatezko bikoteak dira eta seme alabak biologikoak zein adoptatuak izaten dira, baita aurreko bikotearena.

- Guraso bakarreko familiak

Guraso bakarra eta honen seme-alabek osatutako familia. Alargunak, bereizi diren bikoteak, ezkongaiak...

- LAT (Living-Apart-Together)

Etxe ezberdinetan bizi diren bikoteak baina bikote iraunkorra osatzen dutena osatzen dute. Seme alabak etxeetan txandaka ibili ohi dira.

- Seme-alabarik gabeko guneak

Bikote askok seme-alabarik ez izatea erabakitzen du. Beste bikote batzuek erabaki hori hartzen ez duten arren, arrazoi desberdinak direla eta ezinezkoa zaie haurrik izatea.

- Pertsona bakarreko guneak

Ezkongabeak. Maiz, uste baino gehiagoetan, bakardadea aukeratzen da.

Carmen Alborch-ek (1999) dio bakarrik bizitzeko aukera gaur egun posiblea dela independentzia ekonomikoagatik, sexu harremanetan izandako aldaketengatik, eta pertsonen arteko harremanetako malgutasunari esker.

- Familia berreraikiak

Ezkonduak edo ezkongabeko bikoteak osatuta. Gutxienez, bikotekide batek, aldez aurretik izandako beste harreman batetan seme-alabaren bat izan zuen. Aita, ama, amaordea, aitaordea, anaia, anaiordeak... familia partaideak dira.

- Adopzio-familiak

Adoptatzaileak gurasoak dira eta adoptatua haurra edo haurrak. Gurasoekiko lotura genetikorik ez dagoen arren, haurrak ekartzeko nahia handia izaten da. Batzuetan ere, haur bat adoptatua izan daiteke eta bestea biologikoa.

- Harrera-familiak

Familia hauek haurrak behin behinekoz edo era iraunkorren babesten dituzte. Bitartean guraso biologikoak gainbegiratuak izan ohi dira. Harrera iraun bitartean, haien arazoak konpontzen aritzen dira. Famili hauek maiz, seme alaba biologikoak dituzte ere.

- Familia homoparentalak:

Sexu bereko pertsonen osatua. Familia mota hau onartzeko gizarteak oraindik lan asko dauka egiteke, baina aurrerapauso garrantzitsuak eman dira.

- Ugalketa lagundua eta laguntza teknikoak:

Batzuetan familia monoparentalak izaten dira edo haurrak beren kabuz izateko arazoak dituzten familiak, horregatik intseminazioa, edo in vitro ernalketa erabiltzen dute. Alokairuzko umetokiak hainbat hiriburuetan ere erabiltzen dira.

- Etorrinen familia aniztasuna

Azken urteetako migrazio mugimenduek asko aldarazi dute familien konfigurazioa. Askotan gurasoetako bakarra etorri da bizimodu hobearen bila... Pertsona hauek kultura eta ohiturak desberdinak dituzte maiz. Rodríguez-ek (2008) azaltzen duen moduan, gurasoen migrazioak seme-alaben hezkuntza aldatzen du, familien partaideen arteko harremanak baldintzatuz.

1.5. Komunikatzeko estrategiak

Komunikazioa informazioa transmititzearen jarduera da. Latinezko *communis* hitzetik dator, eta etimologiaren aldetik «partekatu» esan nahi du.

Pertsonen arteko ezinbesteko ekintza da: pertsona izateko eta gizartean bizi ahal izateko. (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Komunikazio>) (2014/03/17an kontsultatuta)

"Gizakien ahalmen eksklusiboa izan arren, komunikazioa bere harreman indibidualak zein kolektiboak garatzeko eta bideratzeko beharrezkoa duen tresna kognitiboa eta azaltzailea da: Kognitiboa da mundua ulertzeko balio diolako eta azaltzailea da ulertu duen munduari buruzko diskurtsoa eraikitzeke balio diolako." (Basterretxea, 2002,64)

Hizkuntza gizarte tresna da batez ere eta gizarte interakzioetan sortzen da. Bestetik, keinuak ere giza komunikazioaren osagai garrantzitsuak dira.

1.5.1. Komunikazioaren helburuak

(<http://xanvilar.com/objetivos-de-la-comunicacion/>) (2014/03/23an kontsultatuta) web orriaren esanetan komunikazioak hiru helburu nagusi ditu:

- Informazio zehatza transmititzea (informatzea)
- Atentzioa eta interesa piztea (konbentzitu)
- Erreferentzia izaten jarraitzen saiatzea (oroitaraztea)

Ondoren komunikazioaren helburu bakoitza zehazten da:

- Informatzea: Zerbaiten berri ematea da, ezaugarriak, zergatia, erabilera...
- Konbentzitzea: Bestea konbentzitzen saiatzea litzateke, horretarako argudioez baliatzea eta hauek ongi erabiltzen jakitea beharrezkoa da.
- Oroitaraztea: Aurretik komunikatu den hori oroitarazten da, bestearen buruan presente egotea bilatuz.

Hiru helburuek garrantzia berbera dute eta normalean orden bera jarraitzen dute. Lehenik eta behin zerbaiten inguruan informatzen da, ondoren informatu den horretaz konbentzitzen saiatzen da eta azkenik ez ahazteko, oroitarazi egiten da.

1.5.2. Komunikazioa errazten eta zailtzen duten elementuak


(<http://www.encyclopediasalud.com/categorias/psicologia/articulos/la-comunicacion-factores-que-la-favorecen-y-factores-que-la-obstaculizan>)

(2014/04/11an kontsultatuta)

Ferran Salmurrik (1990) dioenaren arabera, pertsonen arteko komunikazioaz hitz egitean pertsonen gaitasunak eta jarrerak kontutan izan behar dira.

- Alde batetik komunikazioaren erraztatzaileak aurkitzen dira:
 - Leku eta momentu aproposa aukeratzea.
 - Egoera animiko emozional positiboak izatea.
 - Entzuteko jarrera aktiboa izatea.
 - Empatia erakustea.
 - Berriazko galderak egitea.
 - Gainontzeko pertsoneri iritzia eskatzea eta kontutan hartzea.
 - Nahiak eta sentimenduak lehengo pertsonan adieraztea.
 - Mezu koherenteak eta sendoak luzatzea.
 - Besteek egiten dituzte kritikak onartzea.
 - Erabiltzen den informazioa positiboak izatea.
 - Komunikatzen ari direnek komunikazio kode berbera erabiltzea.
 - Burutzen dien behaketak zehatzak izatea.
 - Elkarrizketaren edukia beste pertsonaren aukerei egokitzea.
 - Sentimenduak adieraztea.
- Bestetik komunikazioa zailtzen duten elementuak daude:
 - Bilatzen diren helburuak kontrajarriak izatea.
 - Komunikazioa momentu eta leku desaproposean burutzea.
 - Atentzioa, ulermena eta mezuen oroitzapena aztoratzen duten egoera emozionalak bizitzea.
 - Salaketak, mehatxuak eta eskaerak erabiltzea.
 - Aurpegiratze moduko galderak burutzea.

- Hainbat motatako adierazpenak erabiltzea, hala nola: “Egin beharko zenuke...”
- Mezuen sendotasun eza, inkoherentzia eta ezegonkortasuna ematea.
- Elkarrizketak moztea edo etetea.
- Pertsonak etiketatzea.
- Orokortzeak erabiltzea “beti edo inoiz”.
- Eskatu gabeko aholkuak ematea.
- Solaskidearen mezuak epaitzea.
- Mezu garrantzitsuak baztertzea edo alde batan uztea.
- Zehaztasun gutxiko zehaztapenen erabiltzea.
- Pertsonalitatearen diagnostikoak egitea
- Arreta ez jartzea eta ez entzutea.



4.Irudia. Gaitasunen eta jarrerren garrantzia komunikazioan

1.5.3. Ahozko eta ez ahozko komunikazioa

(<http://www.profesorenlinea.cl/castellano/ComunicacionVerbalYNoVerbal.htm>).

(2014/03/16an kontsultatuta) web orritik hartutako informazioa.

- Ahozko komunikazioa:

Ahozko komunikazioa bi era desberdinetan gauza daiteke: Hitz eginez edo idatziz.

Gainera ahozko komunikazioari dagokionez, era desberdinak topa daitezke: Esate baterako, oihuak, txistu egitea, negarra, barreak... egoera animiko desberdinak erakusten dute eta komunikazioaren era primarioak dira.

Ahozko komunikazioaren era garatuena lengoi artikulatua da, hau da, besteekin komunikatzeko silabak, hitzak eta esaldiak sortzen dituzten soinu egituratuak erabiltzea.

Komunikatzeko era idatziak ere oso desberdinak dira (ideogramak, hieroglifikoak, alfabetoak, graffitiak, eta abar). Idatzizko mezuak ongi interpretatu ahal izateko beharrezkoa da igorlea eta hartzaileak kodea ulertzea eta ezagutzea. Azken batean, biok kode berdina erabiltzea beharrezkoa da.

- Hitzik gabeko komunikazioa:

Egunez egun ez ahozko komunikazioaren sistemek garrantzia gehiago hartzen dute.

Norbaitekin hitz egitean, soilik informazio apur bat bere hitzetatik jasotzen dugu. Gainontzeko informazio guztia, ikertzaileen arabera % 60 edo 70a hitzik gabeko lengoiaren bidez igortzen da, hau da, soinuen, keinuen, gorputz mugimenduen eta abarren bidez.

Ahozko komunikazioaz esaten denaz aparte arreta handia jarri behar zaio hitzik gabeko komunikazioari. Izan ere bi hauek askotan kontrajartzen dira.

- Hitzik gabeko komunikazioaren ezaugarriak:

- Ahoko komunikazioarekin erlazioa gordetzen du, elkarrekin erabili ohi dira.

- Askotan komunikazio prozesuaren erregulatuak gisa erabiltzen da, mezuaren esanahia zabaltzeaz edo txikitzeaz arduratzen da.
- Kulturen arabera aldaketan antzematen dira.
- Hitzik gabeko sistemen artean honakoak daude:
 - Gorputz lengoia: Gure keinuak, mugimenduak, ahots tonua, gure arropa, usaina, e.a. besteekin komunikatzeko orduan garrantzia dute.
 - Lengoi ikonikoa: Morse kodea, kode unibertsalak (zeinu hizkuntza, Braille, Morse, sirenak), kode semiunibertsalak (musua, dolu zeinuak), e.a.

Familia eta eskolaren arteko interakzioak aprobetxatzea beharrezkoa da. Pérez de Guzmanen (2002) arabera, era honetan, hauen bidez irakasleak ikaslea gehiago ezagutzeko eta behar duen laguntza eskaini ahal izateko. gainera, jakite pedagogikoan aurrerapauso handia da.

Irakaslea familiekin topaketak mesedetzeko komunikatuak ona izatea beharrezkoa da. Hona hemen, bilerak emankorrak izateko eta familien parte hartzea bilatzeko hainbat jarraibide:

Aurretik aipatu den eguneroko harremanetan igortzen den ahozko informazioaz aparte, eta elkarrizketaz eta bilerez aparte, familiei informazioa helarazteko beste bide batzuk daude.

Kontutan izan behar da tarte bakoitzari parada berezia eskaini behar zaiola eta informazioa tartekatzeko modu guztiei duen garrantzia eman behar zaiola. Guztiak egokiak eta baliagarriak dira. Hauek guztiak, Haur Eskolan baliabide hobezinak bezala ikusten dira.

- Gelako informazio panelak, bertan gurasoek bazkariaren, loaren eta esfinterren kontrola aurkitzen dute, baita ohar informatiboak ere. Era honetan ere, informazioa erregistratuz gauza asko ez ahaztea lortzen da, zenbat alditan egin duten kaka, zer eta nola jan duten... Haur asko

direnez, informazioa erregistratzen ez bada informazio guztia oroitzea zaila suertatzen da.

- Taldearen egunerokoa, bertan, lanaldiaren jardueren garapena laburbiltzen da. Gela bakoitzeko kortxoan aurkitzen da eta familiek egunero kontsulta dezakete. Era honetan, etxean eskolan landutakoaren jarraipena eman daiteke.
- Panel tematikoak, pasabidetan, sarreran eta espazio komunetan kokatzen dira. Bertan, azalpen laburrak dituzten argazkien bidez eskolaren bizitzaren inguruko informazioa eskaintzen da. Ohiturak, tailerrak, proposamenak, txangoak... Gurasoei asko gustatzeaz aparte, haurrei beren argazkiak ikustea asko gustatzen zaie.
- Zirkularrak, izaera orokorreko idatziko informazio da, eskolaz kanpoko jarduera baten komunikazioa, ordutegi baten aldaketa, bilera baten da... Hauek paperean banatu, kortxoan jarri edo emailen bidez bidali daitezke.
- Idatziko txostenak, haurren gaitasunen ebaluazio bat burutzen da. Ikasturte amaieran egiten dira eta hezitzaileentzat azken bileran lagungarri izateko baliabide bezala aurkezten da.

1.6. Pikler: Komunikazioa autonomia lantzeko orduan

"Respetar los tiempos de maduración del desarrollo de los instrumentos del hacer y del entender, de la lenta, plena, extravagante, lúcida y cambiante aparición de las capacidades infantiles es una medida de sabiduría dialógica y cultural". (Emmi Pikler, citada por Hoyuelos y Cabanillas, 1996)

1.6.1. Testuinguru historikoa

Emmi Pikler 1902an jaio zen. Vienan pediatria ikasi ostean bere lana Budapesten gauzatu zuen.

1946an umezurztegi bat zuzentzeko mandatua jaso zuen, izan ere II Mundu gudaren ondorioz, ume asko umezurtz geratu ziren. Urteetan zehar burututako hainbat ikerketek, erreferente afektiborik gabe hezten ziren haurrak arazoak

izaten zituztela erakusten zuten. Honen adibidea instituzio publikoetan ematen zen, hala nola, “Sindrome de Hospitalismoa” delakoa.

Hori guztia ikusita, Emmi Piklerrek egoera aldatzea proposatu zuen eta haurrak instituzio hauetan egon arren hezteko eta hazteko aukera eskaintzea erabaki zuen. Lekua edo espazioa ez zen arazoa bilakatu behar, edo behintzat irtenbidea bila zitekeen.

Horrela, 1970ean Piklerrek sortutako Lóczy institutua haurren garapena hobetzeko hezkuntza eta ikerkuntza zentroa bilakatu zen.

Lehenik eta behin, helduei haurrak behatzen irakasten zitzaien, era honetan haurren gaitasunetan konfiantza izaten erakutsiz. Gainera, haiekin batera haurren jarduerak aberatsagoak izan zitezten materialen eta emozioen baldintzen inguruan hausnarketak egiten zituzten, beti ere haurren jolasean eta ekintzetan era zuzenean parte hartu gabe.

Haur bakoitzaren elikatze eta atsedean edo loaren erritmoak aztertzen zituzten eta fardela aldaketa, janzte, elikatze eta higiene momentuak lasaiak eta erlazio momenturako aproposak izatea bultzatzen zuten, beti ere haurren erreakzioei parada eskainiz eta beren parte hartzea bilatuz.

Emmi Piklerren eta bere laguntzaileen ikerkuntzen aurkikuntza esanguratsuenetako bat, haurraren garapenean laguntzen duten ingurunearen baldintzek adieraztea izan da.

Baldintza hauen artean, oinarritzko ideiak batzuk aipatzen dira. Hauek gurasoak eta hezitzaileak haurrak garatzen diren ingurunearen antolaketari dagokionez orientatzeko baliogarriak izanen dira: Hala nola, helduaren jarrera, espazioa, manipulatzeko objektuak eta arropa.

Helduak haurraren eguneroko zainketetan eginkizun zuzena betetzen du eta haurraren jardueretan berriz zeharkako eginkizuna. Emmi Piklerrek burututako hazkuntza eredia, ondorengo aspektuetan laburbildu daiteke.

- Gizaki erabilgarri gisa aurkeztea, haurraren beharrak asetzeko gai dena.
- Behaketa lantzea (haurra, espazioa, materiala... behatzea).

Bestalde, heldua garapen faktore gisa, haurren garapena ahalbidetzen duten faktoreak behatu behar ditu.

Gainera, helduak mugimendu askeak bultzatu behar ditu, hau da, hurrak heldua imitatzen duen arren, helduak ez dizkio hurrari mugimenduak egiten erakusten. Hau era aproposan burutzeko ingurunea behar bezala antolatu behar da.

Honi guztiari lotuta, helduak ez du inoiz haurra bere kabuz lortu ez duen postura batean jarriko. Hurrak behar duen denbora erabiliz eta horretarako prest dagoenean postura desberdinak bere kabuz ezagutzen joango da.



5. Irudia. 1982ko urtarrilak 9- 1984ko ekainak 6

1.6.2. Jarduera autonomoaren balorea

"Todo ser humano y muy especialmente los niños y las niñas, necesitan vivencias concretas que le demuestren que es atendido y que se le da importancia. Es así como crece un sentimiento de confianza que se convierte en la base para desarrollar la autonomía y para tener ganas de descubrir el mundo." (Wild y Arranz, 2011,126)

Piklerren pentsamenduaren oinarri teoriko batzuk haurrekiko errespetua eta konfiantza dira, haurra jaiotzetik beren eboluzioaren parte aktiboa den pertsona bezala kontsideratzen da.

Emmi Piklerrek haurrengan konfiantza osoa du, bere sortzetiko eta gizarteko gaitasunean. Garapen autonomoaren gaitasunean sinesten du, beti ere beren ekimena errespetatuz.

Pikler eta bere jarraitzaileen ustez, haurra bere kabuz zerbait egitean, interesa jartzen du, gaitasunak lantzen ditu eta ezagutza sendoagoak burutzen ditu.

Honen ustez, inoren ebazpenak eta helduaren parte hartzerik gabe, bere kabuz mugitzen eta ibiltzen ikasten duen haurra gehiegi babesten den haur horrek baino ezagutza sendoagoak jasotzen ditu.

Piklerrek helduaren parte hartze jarrera ekiditen du. Helduaren papera haurraren ondoan egotea da eta soilik haurrak behar duenean laguntza eskaini behar du. Helduaren gehiegizko parte hartzea haurra pasiboa izatea eragiten duelakoan dago.

Haurrei askatasun osoz mugitzea eskaintzea aholkatzen du, horretarako behar adina espazioa proposatu behar da eta espazio hau ongi hornituta egon behar du. Gainera, haurrek mugitzeko arropa eroso beharko dute. Askotan haurrei laguntza eskaini ordez, mugimendua eragozten duen arropa jartzen zaie.

1.6.3. Mugimendu autonomoaren garrantzia lehenengo urtean.

Haurrentzat mugimenduen askatasunaren esanahia “aukerak” dira. Bere garapenaren fase bakoitzean bere posturak eta mugimenduak esperimentatzeko, aurkitzeko, hobetzeko eta bizitzeko aukerak. Horregatik, haurrak bere mugimenduetara egokitutako espazioa, arropa eroso, lurzoru sendoa eta motibagarriak diren jostailuak behar ditu .

Bizkarraldeko posturaren ondoren, heldua haurraren posturan eragin gabe, lehenengo birak, jiroak, e.a. azalduko dira, beti ere haurra buruz behera egonda bere jarrera menderatzean. Geroago, beste etapak etorriko dira, esate baterako, arrastaka aritzea, katuka ibiltzea, esertzea, belauneko egotetik altxatzea edo zutitzea eta abar. Era honetan, jokoaren bidez eta esperientzia berrien bidez bere gorputza eta bere mugimenduak ezagutuko ditu.



6.Irudia. Haurrentzat mugimenduen askatasunaren esanahia “aukerak” dira

Gainera, motrizitate honen bidez, jarduera autonomoa gauzatzen da eta honek pertsonalitatearen egitura laguntzen du.

Piklerrek (1984) dioenez, haurrak jarrera berriak aurkitzen eta ezagutzen dituen heinean, segurtasunez eta mugimendu kontrolatu baten bidez aurreko jarrerara itzultzea ahalbidetzen dio. Lehendik ezagutzen zuen postura honetan, postura berria asimilatu arte, era erlaxatuan jarduten egon daiteke. Beraz, honi erreparatzen bazaio, haurrak ez du helduaren laguntzaren beharrik, behar duena zera da, heldua errespetu osoz bere ondoan egotea.

Jarduera autonomoan oinarritutako mugimendu askea, haurrari bere gaitasunen aurkikuntzan laguntzen dio.



7. Irudia. Haurrak lehendik ezagutzen zuen posturatik abiatuz postura berria asimilatzen du

Irakasle askok horrela uste duen arren, Piklerren arabera helduak parte ez hartzeak ez zuen uztea edo interes ezarekin zerikusirik, kontrakoa baizik. Honek, erlazio sendoa suposatzen du eta honi lotuta ahozko eta ez ahozko komunikazioaren laguntza azaltzen da, begiradak, keinuak, eta abar.

Wild eta Arranzen (2011) arabera, ahozko komunikazioak haurrarekin dugun erlazioan garrantzia handia du. Helduak egiten duen guztia haurrari ahoz azaldu behar zaio. Bestalde helduak, haurra edo helduaren keinuari hitza jartzen dio, horrela elkarrekin burutzen ari diren prozesuari hitza jartzen dio, haurrari eskatzen dion horri, haurra egiten ari den horri eta abar. Egoera horretatik abiatuta, haurrari komunikazioarekiko interesa pizten zaio eta adierazteko tartea eskaintzen zaio. Gainera, prozesu guztian zehar, momentu oro helduarengatik errespetatua eta baloratua sentitzen da.

Helduak ez du era zuzenean haurraren jardueran parte hartzen, alde batetik ez distraitzeko eta bestetik bere kabuz egin ditzaken gauzetan ez laguntzeko eta berak esperimintatu ahal izateko. Beraz, helduak soilik jarduerak zeharka estimulatzeko, horretarako baliabideak behar bezala ezarri eta egokituz.

Hau guztia aurrera eramateko haurrarekin lotura sendoak izatea beharrezkoa suertatzen da. Gainera, eskaintzen zaion segurtasuna haurraren interesetatik sortutako segurtasuna izanda hauekiko lotura sendoarazten du.

Oso garrantzitsua da haurraren ingurunea aberastea eta egokitzea. Hau egiterako orduan haurren garapena eta gustuak kontutan izan behar dira.

Haurra eta helduaren arteko elkarrekintzetan komunikazio aberatsa erabili behar da, hau da gorputz adierazpenaz, keinuz, hitzaz, begiradaz... baliatu behar gara.

Wild eta Arranzek (2011) diotenez, pertsona bakoitza desberdina garen heinean, haur bakoitza desberdina dela kontutan izan behar dugu eta honi lotuta haur bakoitzaren erritmoa errespetatu behar da.

Beraz, haurrak esperimintatzeko gogoia izateko, lehenik eta behin segurtasuna sentitzea beharrezkoa da.

Piklerren praktika pedagogikoaren arabera, hau guztia behatzean, bi ikuspuntu desberdinetatik egin beharko genuke: Batetik helduaren ikuspuntutik eta bestetik haurraren ikuspuntutik. Izan ere, momentu horretan haurra ez da soilik jolasten ari, momentu horretan, jolasteaz aparte momentua bera bizitzen du eta dagoen horretan guztiz inplikatu egiten da.

Konparaketak alde batera utziz eta aurretik aipatu bezala erritmoak errespetatuz, behaketaren bidez, haurraren eboluzioa beha daitezke.

1.6.4. La importancia de los tiempos

Elkarrizketan gidoi komun bat erabiltzen dugu. Gure solasa era ordenatutan erantzundako galderen bidez antolatu da. Honi esker, galderak erantzun aldetik, nahiko zehatzak izan dira.

Honek analisia erraztu du. Analsia era "horizontalean" burutu da, hau da, elkarrizketa guztietan galdera bakoitzaren edukia aztertuz.

2.4.2. Haurra Haur Eskolara eramateari buruz

Guztiek Haur Eskolara joateari alde baikorrak ikusten dizkiote:, hala nola, adin berdineko hurrekin egoteko aukera izatea eta era honetan bizikidetza lantzeko eta konpartitzen eta txandak itxoiten ikasteko parada eskaintzea.

Bestalde, etxeetan presaka ibiltzen direnez ez diete beren haurrei behar adina denbora eskaintzen autonomia lantzeko. Bizi garen gizartean beti presaka gabiltza denak eta presa hori haurrei ere transmititzen zaielakoan daude.

D profilak Haur Eskolara joatearen alde negatiboak ez ditu ikusten, baina, A eta Bk alde negatiboan bat egiten dute. Hauen ustez, Haur Eskolen erratioak oso handiak dira, titikoetan, 8 haur hezitzaile batekin; ertainetan, 1-2 urteko haurrak, 13 haur hezitzaile batekin eta handietan 2-3 urte bitarteko haurrak, 18 haur hezitzaile batekin.

"Alde txar bat esatekotan, bai ikusten dut ratioak gero eta gehiago handitzen ari dituztela eta ume asko dira hezitzaile batentzako eta haurrari momentu horretan behar duen atentzioa edo harrera igual ezin zaio eman." (A profila)

Lehen aipatu bezala C profileko elkarriketatuaren alaba txikienak osasun arazoak ditu eta berarentzat gaixotasunen asuntza bilakatzen da negatiboa. Hala ere, ama honek arazoari buelta ematen dio eta negatiboa bezala ikusi ordez erdi mailakoa bilakatzen du

"Erdi mailako aldeak nik esango nuke, agian gaixotasunarena, baina alde positiboa ere ikusten diot... azken batean umeak immunizatu behar dira eta denok dakigu oso txarra dela umea gaixorik izatea baina beno... ez da hain txarra." (C profila)

2.4.3. Lehen egunak Haur Eskolan

Familiarizazio edo harrera aldiari buruz hitz egitean denek alor batetan bat egiten dute. Ama hauek guztiek haurra ongi egotea nahi zuten eta haurrak uzte sentimenduak izatearen beldur ziren. agian bertan utzi eta alde egitean bueltatuko ez zirela pentsa zezaketen.

A profilaren kasuan, lanean egon denez, haurraren aiton amonek familiarizazio prozesua burutu dute eta honek oso esperientzia positiboa bezala bizi izan du. Lehen egun horietan, bere gurasoek haurra eskolara pozik zihoala esaten zioten eta berak eta bere bikoteak etxean ez zuten inolako aldaketarik sumatu.

C eta D profilen kasuan, haurrengandik banatzea gogorra suertatu zitzaien. Dena den, haiei banaketa gogorra suertatu bazitzaien ere, haurrak oso ongi moldatu ziren eta horrek lasaitu egin zien.

B profilaren kasuan berriz, hasiera batetan familiarizazio aldia ez zuen beharrezkoa ikusten, gainera berak bere garaian ez zuen horrelakorik ezagutu, baina esperientzia bizi ostean ikuspuntutuz aldatu zuen.

"Ostras! al principio fue dura... además yo decía que chorradas esto de la adaptación, a mi me dejaban en la escuela y punto pelota y no me pasaba nada... no me quede traumatizada, pero, leches, después ves que sí que hay que pasar ese periodo de adaptación... al principio le dejás llorando, tú te vas y también lloras...pero bueno, pero ahora va bien, Ane lo paso mal pero por el tema de yo que se críos nuevos, rostros nuevos, espacios nuevos...pero bueno ahora está muy bien."(B profila)

A profilaren ustez, bere hurrek ez zituzten lehen egunetan beldurrik izan. Berak dioenez Haur Eskola batetan lan egiteak eta mundu hau ezagutzeak lasaitzen zuen. Familiarizazio aldia ezagutzen zuen, ikasturte hasieran haur bakoitza jarrera desberdina zuela, negar egitea normala zela... B; C eta D profilek berriz, beldurrak zituzten eta gainera beldur hauek berberak ziren, haurrak utzita sentitzea, negar egiteari ez uztea eta gustura ez egotea.

2.4.4. Haur Eskolarekin erlazioa

Guztiek Haur Eskolarekin oso erlazio ona eta estua dutela azpimarratzen dute.

"Nik haurra ekartzen dudanez eta nik haurra jasotzen dudanez erlazio estua daukat. Gero, hezitzaileekin hitz egin dezaket. Egunero kontatzen didate ea nola egon den edo gauza bereziren bat gertatu den... Orduan alde horretatik oso kontent eta pozik nago, oso irekia da erlazioa, esaten digute dena, ikus dezakegu dena... Gainera, egunero agertzen da kortxo kanpoaldean zer egin duten eta hori eskertzekoa da porque familiak horrela lasaiago gaude jakinda zer egin duten egunean zehar. lasaitasuna sentitzen dut." (A profila)

Haur Eskolarekin duten erlazio positiboaz aparte, hezitzaileekin bizi izan duten erlazio prozesua baikorra ikusten dute.

"Jo, muy bien. Al principio eso, verla tan segura y cariñosa hacia las crías en el periodo de adaptación . Se implicaba mogollón en el desarrollo de los txikis, con ganas de animarnos a trabajar con ella. no se había mucha comunicación. Comunicación hasta ... para dormir tu hija que usa o yo que se...y es que conoce perfectamente a Ane y la verdad que disfruto bastante compartiendo... cuando llego a recoger a Ane me cuenta cosas yo le cuento a ella.. distintas experiencias, ¿no?" (B profila)

Hezitzailearekin bizitako erlazio prozesua baikorra izan den bezala, gaur egun erlazioa primerakoa da eta denek informazio trukea gorai patzen dute. Hasieratik berarekin ongi egon badira ere, denboraren poderioz erlazio hori sendoagoa bilakatu da.

"Buenísima, lo que te he comentado, a diario hablamos, no hay detalle que no nos cuente y estoy tranquila, estamos tranquilas, se que Ane está a gusto, va a gusto..."(B profila)

"Bai, oso ona da. egunero hitz egiten dugu ratotxo bat eta beti dago informazio trukea. Nik ere esaten diot nola pasatu duen gaua eta hori eta bai, beti dago truke bat, berak niri eta nik berari." (C profila)

2.4.5. Familia eskola erlazioaren inguruan

Denentzat, lau elkarriketatuentzat, oso garrantzitsua da familia eta eskolaren artean erlazio estua egotearena, era honetan familiak eroso sentitzeko, eskolako pertsonalean konfiatzeko eta eskolaren gardentasuna sentitzeko. Erlazioa ona eta estua dagoenean dena errazagoa bihurtzen da, azken batean eskolan geratzen diren txikitxo horiek beren altxorrak dira.

"Bai, gainera adin hauetan haurrengan aldaketa asko suertatzen dira eta ez badago erlazioa familia eta eskolaren artean aldaketa horiek aurrera eramatea zaila da, fardela aldaketaren kasua edo jateko kasua. Etxean lan egin behar dugu eskolan lan egiten den moduan, gutxienez

komunikazioa bat egon behar da eskola eta gurasoen artean, bestenez aurrerapenak ez dira emango edo haurra ere gaizkiago dago." (A profila)

"Bai, bai.. nik uste dut baietz, batez ere, umea ezagutzeko. Askotan informaziorik ez baduzu umea kostatzen zaizu ezagutzea, jakiteko batez ere e egoera bizitzen ari duen, edo sentimendu aldetik nola pasatzen ari duen. Bai, bai oso garrantzitsua iruditzen zait. Askotan umeak ezin duenez esan, bai adierazi, baina esan ez , pues falta den informazioa elkarri esaten diogu, ez?" (C profila)

A, C eta D profilek bat egiten dute gaur egun, Haur eskolan, familia eta eskolaren komunikazioa lantzeko erabiltzen diren teknikekin aski dela esatean. Teknika hauek honakoak dira, eguneroko elkarrizketa, egunerokoa idatzia eta bilerak. Dena den, teknika hauekin aski dela uste badute ere, beharrezkoak direlakoan daude.

B profilaren kasuan ideia berri bat planteatzen du, gainontzeko gurasoekin harremana lantzeko ere, kafe tertulia antzeko hitzaldiak antolatzea.

"Quizá no se..alguna charla tipo café tertulia para tener relación también con otras familias. También es cierto que sales de la escuela y en el parque te juntas con ellas, pero bueno, en un espacio más abierto... igual no profundiza tanto." (B profila)

2.4.6. Generoa eta jostailuak

Beren hurrei erosten dizkieten jostailu motei buruz hitz egitean, ideia desberdinak azaldu dira. B eta C profilak, biek alabak dituzte eta beren alabek era guztietako jostailuak dituztela esan dute, baloiak, panpinak, aulkitxoak... Nahiz eta biek hurrek nahi dutena erosten dietela aitortze, beren alabak gustuak eta preferentziak dituztenez haiek zer erosi erabakitzen dute.

"Bai, beno ba hasiera batean geneukan denetarik, bai baloiak, bai txirrindulak, bai panpinak... Baina beno, nire alaba nagusiak beno nik uste dut nahiko argi duela zer nahi duen... eta baloia ez zaio batere gustatzen, beno guk ere ez gara batere futbolzaleak. Nik uste dut horrek ere izugarritzko eragina duela eta klaro nik ikusten ditut parkean beste

haurren gurasoak, eta aita batez ere, beti bezala, aita futbolzalea bada bere seme alabak ateratzen dira futbolzaleak. Ez dakit, baina beno, gure kasuan, gure alabak dauka denetarik baina baloia ez zaio batere gustatzen baina panpinak ere ezta asko. Orain hasi da printzesen historiarekin, baina orain arte, ba hori...panpinak ere ez, baina beno, ez dakit, guk uzten diogu berak nahi duena eta aukeratzen du nahi duena. liburuak izugarri gustatzen zaizkio." (C profila)

Semeak dituzten A eta D profilaren kasuan garrantzitsua ikusten dute denetarik izatea, baina Dren semeak denetarik duen bitartean Arenak ez ditu ez panpinarik ez baloirik, baina gustuko ez dituelako dela adierazi du, haur honen kasuan, animaliak soilik gustuko ditu.

2.4.7. Haurrak bere gorputzarekin jolasean

B, C eta Dk naturaltasunez eta ongi ikusten dute beren semeak edo alabak kikiak jartzea edo azazkalak margotzea eskatuz gero hola jokatzera. Ez dute inolako arazorik eta eskatuz gero berehala egiten dute. A profilari berriz, ez zaio gaizki iruditzen nahiz eta arraroa ikusten duen. Dena den, bere bikotea ezagututa ongi ez zitziola irudituko uste du.

"Nik badakit hasieran arraroa egingo zitzaidala. Nire bikoteari, ez, bueno, ez zion inolako graziarik egingo. Baina egia da, ilea oso motza daramate eta kikiak ez eta azazkalak margotzen ez ditudanez, ba ez dute ikusi. Orain udan margotzen baditut eta esaten badidate, pues seguraski margotuko niela joko baten moduan... edo ez nion inolako garrantzirik emanen." (A profila)

2.4.8. Haur Eskolako materialak

Denek Haur Eskolan era guztietako materiala egotea onuragarria delakoan daude, era honetan haurrek nahi duten horrekin jolastu ahal izateko eta arazo ekonomikoak direla eta etxean jostailu askok ez dituzten familien kasuan, gabezi hau orekatzeko. Bestetik B eta D profilen erantzuna ildo beretik doa, honen alde egiten dute eta gainera baterako hezkuntzaren alde apostu garbia egiten dute:

"Claro... es un poco lo que te estoy diciendo... a mi me parece que ellas tienen que optar y elegir . Y además en nuestro caso, te acabo de decir no somos una pareja convencional, somos 2 mujeres y hemos vivido un poco esa historia sentirte un poco rechazada.. vamos, que si al niño le gusta la muñeca que juegue con muñecas, o al contrario que ella sea lo que llamábamos antes chico...es lo que hay y ya está, ella tendrá que decidir..." (B profila)

"Si, muy importante, para que aprendan a jugar lo mismo los chicos con cosas de chicas, las chicas con cosas de chicos... que no haya ningún problema como antes teníamos en nuestra generación... igual te gustaban más las cosas de chicos y ya te catalogaban o te decían que eso no... o yo que sé. Y ¿por qué no? Si a ti te gustaba jugar a eso... pues sí, me parece muy bien."(D profila)

2.4.9. Autonomia eta komunikazioa

Gai hauen inguruan solasteko parada izan dugu eta denek autonomia lantzerako orduan komunikazioak ezinbesteko papera betetzen duela uste dute. Hauen ustez, helduak egiten duena edo nahi duena hurrei hitzez azaldu behar die, era honetan hurrek guztia hobe ulertzeko eta parte hartzea bultzatzeko.

"Bai, bai nahiko. Azken finean nik uste dut oso garrantzitsua dela esatea umeari zeintzuk diren zure asmoak edo berarekiko eta esatea egingo duguna. Azalpenak nik uste dut oso garrantzitsuak direla. beno ba orain aldatuko dizut pañala eta behitu kaka daukazu edo pixka bat azaltzea berak ulertzeko ondo zer egin behar den edo zer egingo dugun. Berak argi izateko, gauzak ez egiteko sin mas, porque si esaten den bezala. Azaltzea zergatik eta berak ere pixka bat barneratzeko eta ulertzeko. Uste dut horrek errazten duela, ez, holako ohiturak barneratzeko." (C profila)

Laurentzat autonomiak paper garrantzitsua betetzen du beren hurren bizitzan eta horregatik etxean era batean edo bestean autonomia lantzen dute. Autonomia lantzerako orduan, garrantzia handia ematen diete hurrei gauzak egiten uzteari.

"Ya te he dicho que un poco con las prisas...a veces somos un poco alocadas, queremos hacer cosas y por correr... Pero bueno, intentamos, intentamos a la hora de cambiarle el pañal intentar que colabore, una vez hemos terminado... o sea primero le doy las toallitas y le digo dame una toallita no se que, o...cuando hemos terminado le envuelvo lo le cojo el pañal y le digo tíralo a la basura y patatín y patatán...no se... con el comer, ya hemos aprendido, nos costo, pero ya hemos aprendido...le ofrecemos la cucharilla, el tenedor chiquitillo, el vaso cuando vamos a comerle hacemos llevar el vaso al a mesa yo que sé. En esos aspectos, ¿no?" (B profila)

C profilaren kasuan, besteek esan ez duten bi gauza aipatu ditu, ohiturak eta regresioak. Bere ustez, autonomia lantzerako orduan ohiturek laguntza handia eskaintzen dute eta guztiz beharrezkoak bilakatzen dira. Bestetik, regresioak suertatzea normala izateaz gain txarrak ez direlakoan dago.

"Beno ba.. nik pentsatzen dut koska dagoela ohituretan. Pentsatzen dut ohiturak asko mantentzen baldin badira, autonomia batera etorriko dela.Orduan, guk egin duguna da ohiturak nahiko finkoak eta nahiko landu etxean eta orduan lortu dugu pues.. ume nagusia, bestea oso txikia da oraindik, nahiko autonomoa izatea. Orduan ba hori..uste dut sekretua dagoela horretan, ohiturak nahiko finkatzean... eta orduan umeak barneratzen ditu Momentuan zer egin behar duen eta zergatik, eta horrela lortzen du bere autonomia. honek ez du esan nahi noizean behin zerbait ez duela egin nahi... gauza guztietan bezala atzera pausoak daude."(C profila).

2.4.10. Begirada orokor bat

Egindako elkarrizketen analisiaren laburpentxo bat eginez, elkarrizketan burututako galderen bidez, hiru gai desberdin landu ditut, batetik, eskola eta familiaren arteko komunikazioa eta harremana, bestetik sexismoa eta azkenik autonomia.

Lau elkarrizketatuek haurra eskolatzearen alde agertu dira eta alde positiboak nagusitu dituzte. Hauen ustez, lanean dauden bitartean Haur Eskola beren

haurrak uzteko leku egokia da eta gainera, bertan etxean egitea ezinezkoa zaien hainbat gauza egin ditzakete, beren adineko haur gehiagorekin egon, tailerren material eta testura desberdinekin esperimentatu... Hauek Haur Eskolaren karaktere hezgarria eta bere onura azpimarratzen dute. Beren ustez, eskolarekin eta hezitzailearekin duten harremana baikorra da. Garrantzia handia ematen diote egunero beren haurrekin hainbat ordu ematen dituzten hezitzaileekin harreman sendoa izateari. Eguneroko kontaktuari esker eta eskolak komunikazioa ahalbidetzeko erabiltzen dituen baliabideei esker lasaitasuna eta konfiantza lortzen dute

Baterako hezkuntza eta sexismoari dagokionez, laurak berdintasunaren alde azaltzen dira, baina errealitatean batzuen kasuan mugak edo zalantzak azaltzen dira. Gehien bat, semeak nesken gauzak bezala ikusiak izan direnak eskatzen badituzte, kikiak jartzea edo azazkalak margotzea.

Autonomiari dagokionez, denak autonomia lantzeko haurrei denbora eskaini behar zaiela uste dute. Baina errealitatean, gure eguneroko bizitzan korrika eta presaka aritzen gara eta ez diegu haurrei gauzak egiteko behar adina denbora eskaintzen. Haur Eskolan behar duten denbora eskaintzen zaiela uste dute. Autonomia lantzeko ohiturek edo errutinek zer esan handia dutela diote. Komunikazioak ere zer esan handia duelakoan daude, haurrei dena azaldu behar zaie, zergatik egiten diren gauzak, nola...

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK ETA GALDERAK

Esku artean duzun lan hau burutu ostean, familia eta eskolaren arteko erlazioen inguruko hausnarketa eta ondorio batzuk atera ditut, baita eskolan zein etxean sexismoa eta autonomiari ematen zaion trataera eta beren inguruan burutzen diren lanketaren ingurukoak ere.

Hori dela eta nire hausnarketa 3 ataletan bereiztu dut, familia eta eskola erlazioa, autonomia eta sexismoa.

- Familia eta eskolaren arteko erlazioa

Hausnarketari hasiera emateko, familia eta eskolaren arteko erlazioari parada berezia eskainiko diot:

Izan ere, lan hau burutu ostean errazagoa suertatu zait, bai gelan gurasoekin harremanak hobetzeko proposamena burutzea, baita gaiaren inguruko hausnarketak burutzea ere.

Lehenik eta behin familia eta eskolaren arteko harremana eta komunikazioa egokia izan dadin aldaketa sozialak gauzatu behar direlakoan nago:

Gizarteak familia eredu guztiei harrera eman behar die eta aniztasuna hau positiboa bezala ikusiz errespetatu behar du. Gaur egun, gizartea aldatu dela esaten den arren, oraindik ez dira eredu guztiak berdin ikusten. Honakoa gauzatzeko materiala eta edukiak egokitu beharko dira. Gainera, oso aproposa den materiala eskura dago esate baterako, Pirritx eta Porrotxen familia kartak.

Gainera, irakaslegoak sentsibilizazio ikastaroak egin beharko lituzke, familia ereduen ingurukoa, sexismoaren ingurukoa... Irakasle askok oraindik bere mentalitatea zabaldu beharrean baitaude.

Bestalde, irakasle askoren ustez beraiek dira egia bakarra dutena eta asko kostatzen da egiten zaie, gurasoen iradokizunak eta usteak entzutea, kontutan izan gabe gurasoek beren seme alabak gehien ezagutzen eta maite duten pertsonak direla. Irakasle hauek gurasoak errespetatzen ikasi behar dute.

Honi guztiari lotuta, elementu ekonomikoa eta irakasleen formazioa. Krisiaren ondorioz baliabideak gutxitu dira eta murrizketekin ere hauek burutzeko aukerak murriztu dira, gero eta ikastaro gutxiago eskaintzen dira. Gainera, ikastaroak burutzeko irakasleen inplikazioa beharrezkoa da. Askok bere lan orduak burutu bezain pronto etxeratzeko gogoia dute eta ez diote prestakuntzari behar adina denbora eta garrantzia eskaintzen. Lanbide honetan etengabe berritu eta prestatu behar denaren garrantziaz jakinarazi behar da jendea.

Prestakuntzari eta formakuntzari lotuta, eskolatan gauzatutako hainbat esperientziek guraso eta irakasleek elkarrekin burututako ikastaroak oso emaitza interesagarriak izan dituzte, komunean lan egiteko bideak bilatuz, hauen arteko komunikazioa eta erlazioa hobetuz... Guraso zein irakasleentzat interesgarria eta deigarriak diren ikastaroak burutu daitezke.

Gainera, familiek eskola eta hezitzailearen inguruko pentsamendu positiboak izatea funtsezkoa da, izan ere pentsamendu hauek guztiak haurrei transmititzen zaizkie eta eragin handia dute hurrek eskolan sentitzen duten erosotasunarekiko. Familiak eskolako pertsonalarekin ziur sentitzen direnean, ziurtasun hori haurrei transmititzen diete. Konfiantzarekin lotuta, familiak hezkuntzaren inguruko zalantzaren bat dutenean beren haurren hezitzaileengana jotzea bultzatu behar da., era honetan bion artean haurarentzat onena bilatuz.

Hau guztiaz gain, garai hauetan zeinetan lan mundua hain gaizki dagoen, guraso askori beren seme alaben inguruko bileretara joateko edo gaixo daudenean beren bila joateko baimena eskatzea kostatzen zaie, lanean arazoak izanen dutenaren beldur dira eta askotan gainera hala izaten da eta arazoak dituzte, kaleratzeak... Hau guztiz aldatu beharko litzateke eta langileen seme alaben hezkuntza eskubidean gurasoen parte hartzea bermatzeko baimenak egon beharko lirateke.

Bestetik irakasleek eta gurasoek bere gaitasunetan sinestu beharra dute. Honi lotuta, auto-estima landu beharko litzateke. Gure buruaren inguruko ideei positiboak ditugunean, kritikak hobe jasotzen baititugu. Gainera hurrekin autoestima lantzeko gurea landu behar dugu ere.

Irakasleek bilera orduen egutegi zabala eskaini beharko zizkieten gurasoei, ez soilik eguerdi aldean, arratsaldean ere orduren bat bileretarako izan beharko zituzten. Honetaz gain, hezitzaileek hainbat gurasok jardueretan parte hartu ez izana ulertu beharko zuten, bakoitzaren bizitza oso konplikatuta baita eta kritika alde batera utzi beharko lirateke.

Eskolako pertsonal guztiaren arteko erlazioa ona izateaz gain koordinatua beharko luke izan, era honetan familia eta haurrei ahalik eta hoberen arreta eskaini ahal izateko.

Gauzak lantzerako orduan, eskolak eta gurasoek era berean lan eginez, pautak berberak jarraitu beharko lituzkete... etxean eskolaren jarraipena izanda eta alderantziz.

Posible diren kasuetan, horrenbeste email, eskutitz eta ohar erabili ordez, aurrez aurreko komunikazioa bultzatzea hobe litzateke. Dena den, posible ez den kasuetan bestelako baliabideak erabiltzea komeni da.

Komunikazioa gero eta hobe izan dadin familiak eta eskolak, biek, komunikatzeko estrategiak ezagutu behar dituzte. Hau gauzatzeko, komunikazioa errazten eta oztopatzen dituzten estrategiak ezagutu behar dituzte.

Hausnarketa hau burutu ostean, nire irakasle lanean aurrera eramanez nuke proposamen bat burutu dut. Proposamenari dagokionez, esan beharra dut proposamen hau ez dela eskola ziklo edo adin tarte batera mugatzen, proposamen hau irekia da. Haur Eskoletan aurrera eramateaz gain, ikastola eta eskoletan aurrera eramatea beharrezkoa eta garrantzitsua ikusten dut.

- Lehenik eta behin eskolaren gardentasuna beharrezkoa dela ikusten dut. Eskolaren gardentasunaz hitz egitean zera esan nahi dut: Gurasoek bere begiekin eskola ikusteko aukera izatea, hau da, gelaraino sartzea. Haur Eskola gehienetan horrela funtzionatzen den arren, eskoletan normalean, irakasleak haurrak sarreran bildu eta berak gelara sartzen ditu. Gurasoek gelaraino sartuko balira gardenagoa izango litzateke eta gelako errealitatearen atal bat ikusteko aukera izanen lukete.

- Proposamenarekin jarraituz, gurasoekin egunero informazioa tartekatzeko tarte bat eskaini behar da. Sarrera eta irteera momentuak honetarako oso momentu aproposak bilakatzen dira.
- Informazio trukatzeko tarte horretaz gain, irakasleak eguneroko idaztea komenigarria da. Era honetan, egunean egindakoa irakurri ahal izateko eta etxean jarraipen bat emateko. Egunerokoa euskaraz zein gazteleraz idatzi beharko zen, era horretan guraso guztiek ulertzeko. Gainera, horrela ere, irakaslearekin informazioa tartekatzeko denbora murrizten da, beste gurasoei hitz egiteko parada eskainiz.
- Maiz, guraso askok lana dela eta, ezin dituzte bere haurrak eskolara eraman edo jaso. Gauzak horrela, garrantzitsua litzateke, haur guztiek beren poltsatxoan koadernotxo bat eramatea. Era honetan, eskolan edo etxean zerbait gertatuz gero edo informazio bat behar izanez gero, gurasoak zein irakasleak koadernoan idatzi eta erantzun ahal izateko.
- Teknologia berriek inguratzen gaituzten urte hauetan, hauetaz baliatu behar gara ere. Gurasoek irakaslearen laneko emaila izan behar dute eta irakasleek gurasoena. Era honetan, nahiz eta kontaktu zuzena harremanetarako nahiago izan, komunikatzeko beste bide bilakatzen da.
- Ikasturtean zehar hainbat bilera burutu beharko lirateke. Alde batetik taldekoak, gurasoen artean harremana lantzeko ere. Hauetan gai bat landu daiteke eta goxoagoak izateko bilerak kafe eta pastekin burutu daitezke. Taldeko bileraz at, banakakoak burutu behar dira. Batzuk urtean programatuak (ikasturte hasiera eta amaiera) eta beste batzuk guraso zein irakasleek beharrezkoa ikusiz gero.

- Gurasoei interesgarriak zaien gaiak kontutan izanda, irakasle zein familientzako ikastaroak edo hitzaldiak antola daitezke. Honetarako eskolako APYMArekin harremanak izan daitezke.
- Dibertigarria suertatzen da hezitzaileak gurasoei zuzendutako tailerrak burutzea: Hala nola, kilikiak edo txontxongiloak egitea, abestiak erakustea...
 - Autonomia

Autonomiari dagokionez egin dudan hausnarketa ondorengoa da.

Lehenik eta behin, bat etorri behar dugu autonomia kontzeptuaz eta zertarako nahi dugu autonomia hori eta zer-nolako autonomia erabiliko dugun

Familia eta eskolaren arteko erlazioaz aritu ostean, familiak zein eskolak haurrekin duten erlazioa aztertu beharko genuke.

Maiz, hurrei autonomoak izatea eskatzen diegu, baina hori lortzea lagundu orde, maiz oztopatu egiten dugu. Hau guztia ikusita, gure jarreraren inguruan hausnarketa bat egin beharko genuke. Izan ere, maiz gure inkoherentzietan erortzen baikara.

Pertsona guztiok gauza batengatik edo beste batengatik txikien garapenaren inguruan zertxobait dakigu. Esate baterako, zazpi hilabeteekin pureak hartzen hasten dira edo bi urterekin esfinterrak kontrolatu behar dituzte. Oinarria hau izanda, guztiok dugun barne egutegi hori ahaztea komenigarria suertatzen da.

Eta zergatik barne egutegia ahaztea komenigarria suertatzen da? Ohartzen ez garen arren, egutegi hori kontutan izanda, haur askoren prozesua bizkortzen dugu eta erritmoa hurrek markatu behar dutela ahaztu egiten dugu.

Orduan, zergatik eskatzen diogu bi urteko haur bati esfinterrak kontrolatzen jakitea? Akaso orain, guri heldu bezala axola zaigu noiz hasi ginen ibiltzen edo noiz utzi genion kaka gainean egiteari? Lana bilatzeko beharrezkoa zaigu? Lehenago esfinterrak kontrolatzea abantailak ditu? Haiek izan beharko ziren nola eta noiz aurrera egitea erabakitzen dutenak.

Gizakiek ikasteko eta garatzeko gaitasuna dugu. Jaiotzetik dugun eta berezkoa den gaitasuna da. Pertsonak gure artean desberdinak garen bezala, erritmo desberdinak ditugu eta horrexegatik erritmo desberdinekin, baina denok aurrera egitea lortzen dugu.

Gauzak horrela, baloratu behar dena ez da hala nola eta gero eta azkarren gauzak egitea lortzea baizik eta, prozesua bere osotasunean positiboa izatea.

Haurrak trebatzetik edo momentu egokitik, hau da, bere gaitasunetatik, ikastea nahi dugun baloratu behar dugu. Baina errealitatean balio duena prozesua denboran positiboa izatea da, haiek erabakiak eta ekimenak hartzen dituztenak baitira.

Gure okerrak behatu ahal izateko adibide bat erabiliko dugu, helduak haurrekin esfinterren kontrola landu nahi dugunean, guk erabakitzen dugu noiz izan behar den. Gainera, normalean bi urteko adina aukeratu ohi dugu, berez haurrentzat horren konplexua izan ohi den adina (ezetzaren adina). Hurrei gihar hori kontrolatzea esfortzu fisiko eta emozional handia suposatzen die. Baina nola sentitzen gara gu gai ez garen zerbait egitea eskatzen digutenean? Zapuztuak, haserre, segurtasun faltarekin... Hau guztiagatik, garrantzitsua da fardela kendu aurretik hurrek bidaltzen dizkiguten seinaleak behatzea: Adibidez, haur askok gortinen atzean ezkututzen dira kaka egiteko, beste askok bakardatea edo intimitatea bilatzen dute... Seinale hauek guztiak behatu eta aztertu behar dira.

Ibiltzarekin antzeko zerbait gertatzen da. Helduak haurrak zutik jartzen ditugu eta haur gaixoak makurtuak, konkortuak eta egonkortasunik gabe aurrera egiten dute. Honek haurrak oraindik bertikalki jartzeko eta ibiltzeko prest ez daudela argi uzten duen arren, ez diogu kasurik egiten eta ez dugu itxoiten. Estrategia on bat jaiotzetik lurrean uztea da eta haurrak bere kabuz bere garapenaren arabera bere mugimenduak sortzen eta ezagutzen joatea da: Bueltatzea, katuka haritzea... Haurrak gu bere ondoan egotea beharko du, izan ere bere garapenean lagundu ahal dugu. Hurrek haientzat pentsatutako espazio bat beharko dute eta pixkanaka-pixkanaka fase bakoitza gaingitu heinean... bakarrik ibiltzeari ekingo dio

Pentsa dezagun... Zer egiten dute hurrek gu ibiltzen jartzen ditugunean eta erortzean altxatzen ez dakitenean? Orduan, zer egingo dute? Dudatsu eta kili-kolo egongo dira eta helduarenganako dependentzia sentituko dute. Hurrek lehenik eta behin behar dutena segurtasuna da. Eta non geratzen da segurtasuna?

Hau guztia aztertu ondoren hausnarketa txiki bat egin beharko genuke eta ondorengo galdera gure buruei luzatu. Itxoiten dakigu? Beti parte hartu behar dugu?

Gure parte hartzea laguntzeko intentzioarekin den arren, beti gure laguntza jasotzea onuragarria da? Edo egiten ari garena aurreratzea da?

Askotan, hurrei ez diegu beren kabuz egiten uzten, baina autonomoak izatea eskatzen diegu. Era honetan kontraesanetan erortzen gara, zikintzen direnez ez diegu bakarrik jaten uzten, edo ez diegu bakarrik janzten uzten presa dugulako.

Bestalde, oso ohikoak izaten diren regresioak edo atzerapausoak daude. Batzuetan egiten dakiten zerbait ez dute egin nahi eta momentu horretan gurasoei edo irakasleei beldurra etortzen zaie eta egitea eskatzen zaie “egiten dakizu, egin ezazu”. Egoera ongi behatuz eta aztertuz eta beti ere hurrak ongi ezagutzen ditugula kontutan izanda, momentu horretan hurrek kargatzea behar dutela ikusi behar da, alegia, babesa behar dutela. Guztioi gertatzen zaigun zerbait da, ez da txarra den zerbait, behin-behineko zerbait baizik. Izakioi mugikorrei gertatzen zaien gauza berbera gertatzen zaigu, deskargatu egiten gara eta behin kargatu ostean, berriz aurrera egin dezakegu. Heldu bezala, momentu batzuetan zerbait egiteko gogorik ez dugu eta gure inguruko jendearen babesa eta maitasuna jasotzea behar dugu. Hurrengo egunean ordea pilak kargatu ostean, eskatzen zitzaigun hori eta hainbat gauza gehiago egiteko prest gaude. Hurrek ere, guztiz indartuak eta sendotuak daudenean, aurrera egingen dute eta etapa hau gaindituko dute. Gainera, “atzera joatea” baimentzen badiogu eta babesten badugu “horrela ere maite zaitut”, beste momentu batetan bakarrik aurrera egiteko gai izanen da, izan ere, hauek helduak izatea bilatzen eta miresten dute, autonomoak izan nahi dute.

- Sexismoa

Lana burutu ostean ere hezkidetzan, baterako hezkuntza eta sexismoaren inguruko hausnarketa txiki bat egin dut ere.

Nahiz eta azken hamarkadetan sexismoa asko gutxitu; lan handia egin behar da arlo horretan eta jadanik hasi zen berdintasunerako bidea jarraitu behar dugu.

Nire ustez, atal teorikoan aipatu dudan bezala, sexismoaren alorrean gauza asko landu behar dira, horregatik gai honen inguruan hausnarketa txiki bat egin dut.

Izan ere, denok dakigunez, neskek eta mutilek gizartean sexuaren araberako ereduak jasotzen dituzte; hau da, jarrera eta gaitasun batzuk lantzen dituzte. Horregatik etxeak eta eskolak ez badu hori kontuan hartzen, eta ez bada saiatzen kontzienteki beste eredu desberdin batzuk eskaintzen, gauzak bere horretan utzita lortzen dena zera da: gizarteko eskema sexistak erreproduzitzea.

Neska-mutilak batera, elkarrekin, ikasgela berean, heztea izaten da baterako hezkuntzaren oinarrietako bat, neska eta mutilak fisikoki ez bereiztea. eta hori aurrera eramaten den arren, hainbat eskoletan bereizketa hau ematen jarraitzen da.

Lehenik eta behin egin beharrekoa curriculuma aldatzea da, zeren oraingo curriculumean eduki akademikoei besterik ez baitzaie garrantzia ematen.

Honetaz gain, irakasleok, egin beharreko lehenengo gauza barne lanketa bat da.

Barne lanketa egiteko moduak asko izan daitezke, sentsibilizazio ikastaroak, gainontzeko jendearekin bildu egoera hausnartzeko...

Nire ustez sentsibilizazio ikastaro bat egin ostean, gauzak beste era batetan ikusten dira eta jarrera kritikoa hartuz eta hori aldatu nahian norberaren jarrerak eta gainontzekoenak aztertzen ekiten zaio.

Kontutan hartzekoa da irakasleek honelako ikastaroak egiteko aukera dutela askotan eta gainera prestakuntzarako hainbat ordu dituztela ordutegi barruan, baina ez direnez honen garrantziaz jabetzen beste ikastaro batzuk egiten dituzte.

Nire kasuan C.A.P.-en "Centro de Apoyo al Profesorado" honen inguruko ikastaro bat egiteko aukera izan nuen. Gaiaren garrantzia ikusita Haur Eskolako hezitzaile

talde osoa elkarrekin ikastaroa egitea erabaki genuen gero Haur Eskolan praktikara eraman ahal izateko.

Ikastaroa egin aurretik ezagupenak nituen arren eta kritika nintzen arren, behin ikastaroa egin ostean kritika hori areagotu zen.

Nire kasuan nire lanean, Haur Eskolan eta nire eguneroko bizitzan nola lantzen dudan edo lantzen saiatzen naizen komentatuko dut.

- Zuzendaritza lanetan:
 - Erabiltzen dugun lengoaia zaindu beharra da eta euskaraz arazoa horren larria ez den arren, gazteleraz maskulinoak askotan bi generoak hartzen ditu baitan. Holakoetan eta gurasoei oharrak edo eskutitzak bidaltzean euskaraz ez dago arazorik, baina gazteleraz neutroak diren hitzak erabiltzen ditut “familias padres-en orde” beste batzuetan emakumeari dagokiona jartzen dut lehen “Estimadas madres y padres”. Pixkana egunero tarte bat hartuz dokumentu gehienak aldatzen joan naiz eta gaur egun zerbait idaztean pentsatu gabe holaxe ateratzen da.
 - Gurasoei sentsibilizazio ikastaroak zuzenduz.
 - Uharteko Udalaren Emakumezko eta Gizonezkoen Berdintasun planean lanean.
- Hezitzaile lanetan hurrekin:
 - Pertsonak giza sexualak gara eta gure organoak ditugu, batzuk zakila eta beste batzuk alua. Askotan beldurra zaio termino hauek erabiltzeari eta ahoa edo sudurra hitzak erabiltzen ditugun bezala gure eguneroko elkarrizketetan agertu behar dira.
 - Eskolan eskaintzen diren panpinak arraza desberdinetakoak izateaz gain batzuk zakila izango dute eta beste batzuk aluak.

-
- Gelan era desberdinetako jostailuak egongo dira, aulkitxoak, panpinak, autoak, baloiak, kamioiak... Era askean haur bakoitzak zerekin jolastea erabakiko duelarik.
 - Erabiltzen diren ipuinak landuko dira, marrazkiak batik bat. Gidatzen agertzen dena ez da beti gizonezkoa izango edo garbitzen agertzen dena emakumezkoa.
 - Ume batek mototsak jartzea eskatzen badu jarriko diogu mutila izan arren, era berean zergatik itxoingo dugu eskatzera eskaintzeko aukera dugunean.
 - Maiz ama mototsak jarri dizkiona dela dakigun arren edo arropa garbitu duena edo hamarretakoa prestatu diona ez diogu esango hori esango. Horrelako zerbait esango dugu, “zeinen hamarretako goxoa prestatu dizuten nire aitak ere txorizo bokata goxoa prestatu dit edo atzo aitak eta biok arropa garbitu genuen.”
 - Hezitzaile, jantoki laguntzaile eta garbiketa lanetan emakume eta mutilak egotea gomendagarria da.
- Hezitzaile lanetan gurasoekin:
 - Opariak erosi behar dizkietenean (gabonak, urtebetetze egunak...) jolas ez sexisten gida banatuko zaie.
 - Gustuko dituzten gauzak erostea gomendatuko zaie, mutila bada eta aulkitxoarekin jolasean badago maiz, aulkitxoa erostea.
 - Alor pertsonalean:
 - Topiko ezaguna da, gaur egun, gizonezkoek etxeko lanetan zein gutxi laguntzen duten eta emakumeek zenbat lan egiten duten. Izan ere, hori hainbat etxeetan oraindik gertatzen da. Nire etxean denok berdin lan egiten dugu, etxean zein etxetik at.

- Erabiltzen dudan lengoaia eta hiztegia zainduz eta inguruan daudenek erabiltzen duten lengoian egokia ez den zerbait behatzean komentatuz.
- Konnotazio sexual ezkutua duten hitzak baztertuz; ona dena adierazteko “cojonudo” eta txarra dena adierazteko “coñazo” eta jendea honetaz jabetu dadin saiatuz.
- Inguruko hurrei opariak erosterakoan.
- Nirekin eta gainontzekoekin kritika izaten.
- Bete beharreko paperak femeninoan ere agertzea eskatuz, izan ere mundan emakumeak eta gizonak gaude:
- Kontratuak (lana eta etxebizitza).
- Bankuetxean (el titular).
- Enpadronamendua (titulazio eta profesio gehienak maskulinoan daude).
- Ikastetxetako inpresok (la alumna de educación infantil... mutila izan arren).

Hau lan erraza ematen duen arren askotan, gehien bat hasieran kostatu egiten du hau gauzatzea. Maiz jarrera batzuk, egokiak ez diren arren barneratuak ditugulako.

Lan handia dago egiteko baina ilusioz eta gogoekin eginez gero aldaketak ikusten joango gara eta aldaketak ikustean gogo handiagoz ekingo diogu lanari.

- Bukaerako hausnarketa

Testuan zehar aipatu dudan bezala, niri lan honek hausnarketa sakon bat egiteko balio izan dit.

Izan ere, irakasle lanean jardutean gauza asko kontutan izan behar ditugu eta hurrekin lanean aritzean gure jarrerak duen garrantziaz jabetzea guztiz garrantzitsua da. Haurren ereduak garen heinean informazio eta balore asko

transmititzen dizkiegu. Maiz informazioa nahita transmititzen diegu, baina beste batzuetan ohartu gabe egiten dugu.

Hau guztia ikusita, kontu handia izan behar dugu egiten edo esaten dugun guztiarekin.

Bestalde hurrekin nahi bezala lan egin ahal izateko gurasoekin dugun harremana zaindu behar dugulakoan nago eta gainera bi erakundeek elkarlanean aritu behar dugula argi dut ere.

Gauzak horrela zalantzarik gabe garrantzia handia ematen diot familia eta eskolaren arteko harreman eta komunikazio egokia lortzeari.

ERREFERENTZIAK

- Bolivar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, 119-146, 339.
- Bonal,, X (1997). Las actitudes del profesorado antela coeducación. Propuestas de intervención.
- De Gregorio, A. (1990). La participación de los padres en los centros educativos. Bilbao: Ediciones Deusto, S.A.
- Febre, I; Jansá E (2011) Empieza la escuela infantil, un proceso de familiarización. *Infancia*, revista de Educación 10-16, 129
- Forest, C ; García, F.J (2006). Comunicación cooperativa entre la familia y la escuela. Colección: "Familia, centros escolares y educación". Valencia: Editorial Nau Libres. Fundación Encuentro (1997): Informa España 1996. Madrid: CECS:
- Gallego, J.L. (1998) *Educación Infantil*. Aljibe. Malaga.
- Garreta, J. (2008). escuela, familia de origen inmigrante y participación. revista de Educación, 133-155, 345.
- Hoyulos A, Cabanilla, I citada en la ponencia de Asociación mundial de Educadores infantiles AMEI. Pamplona diciembre 1996. Malaguzzi y el valor de lo cotidiano.
- Idoyaga J.(2007). Autonomia pertsonala eta osasuna. Lanbide ekimena, Elhuyar Hizkuntza zerbitzuak.
- Jiménez, I. (2008). La relación Familia-escuela. Jaén: Ittakus
- Juaristi P.(2003) Gizarte ikerketarako teknikak, teoria eta adibideak. Universidad del Pais Vasco.
- Moreno, M. (1993) Como se enseña a ser niña. El sexismo en la escuela. Icaria Arg. Barcelona.

- Muntaner, J.J. (2000). Aportaciones de la Educación Especial a las escuelas eficaces.
- Miñambres, A. y Jové, G. La atención a las necesidades educativas especiales: 77 - 95.
- Pérez de Guzman, V (2002). Familia y escuela: ¿dos mundos inconexos? Cuestiones pedagógicas: Revista de Ciencias de la Educación, 205-220,16.
- Pikler, E. (1984). "Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global", Ed. Narcea.
- Prat N eta Del Rio M, J (2004). Garapen sozioafektiboa familiekin parte hartuz. Lanbide ekimena. Elhuyar Hizkuntza zerbitzuak.
- Proyecto Educativo de Centro, Escuela Infantil Municipal "Rotxapea" Udal Haur Eskola, Ayuntamiento de Pamplona.
- Quero Lourdes (2012). Rutinas. El universo en nuestras manos. *Infancia*. revista educativa. 6-12,131.
- Ramos garcia, J (1993). El camino hacia una escuela coeducativa. Cuadernos de cooperación educativa, n.º 3. Publicaciones MCEP, Sevilla.
- Rodriguez (2008) Educar desde el locutorio.*
- Romero, F (1995). Pensamiento de los padres sobre la labor docente. En Llorent Bedmar, V. Ed: Familia, Comunicación y Educación, 109-114. Sevilla: Kronos.
- Stassen Berger, K y Tompson, R.A (1997). Psicología del desarrollo: infancia y aprendizaje. Editorial Médica Panamericana. Madrid
- Vázquez M; Pérez M (2012). Comer o no comer. *Infancia*. Revista educativa, 24-25, 131.
- Wild, R y Arranz C (2011) "Libertad y límites. Amor y confianza
- Zabalza, M.A (1987). Didáctica de la Educación Infantil. Narcea. Madrid
- Zabalza, M.A. (1996). Apoyo a la escuela y procesos de diversidad educativa. Parrilla, A. 21-80.

Ziarreta A eta Luzeaga A (2010). Gizarte trebetasunak. Lanbide ekimena, Elhuyar
Hizkuntza zerbitzuak.